

SELEKTIBITATEA (17-18): DISOLBAGARRITASUNA.-HAUSPEATZE
ERREAKZIOAK (5-7)

5.-2017EBP2

P2. Uretan, 25 °C-an, kaltzio hidroxidoaren $[Ca(OH)_2]$ disolbagarritasun-biderkadura (K_{ps}) $6,5 \cdot 10^{-6}$ da.

- Idatzi uretan dagoen kaltzio hidroxidoaren disolbagarritasun-oreka.
- Kalkulatu haren disolbagarritasun molarra.
- Aztertu adierazpen hau, eta esan zuzena ala okerra den: "Konposatu disolbagaitz baten disolbagarritasun-oreka hauspeakinaren disolbagarritasunerantz eraman daiteke gatz disolbagaitza osatzen duten ioietako bat kenduz gero".

6.-2017UAG2

G2. Magnesio hidroxidoaren ($Mg(OH)_2$ -aren) disolbagarritasuna, ur puruan eta 25 °C-an, 0,009 g/L da. Kalkulatu:

- Mg^{2+} eta OH^- ioien kontzentrazioa disoluzio asean .
- Disolbagarritasun-biderkaduraren balioa tenperatura horretan.

7.-2018UAP1

P1. Bi ur-disoluzio nahasten dira, bakoitza 0,5L-koa. A disoluzioak bario(II) kloruroa $2 \cdot 10^{-4}$ M du eta B disoluzioak sodio fluoruro $2 \cdot 10^{-4}$ M gehi sodio sulfato $2 \cdot 10^{-4}$ M (disodio tetraoxidosulfatoa; sodio tetraoxo (2-) sulfatoa).

Datuak: $K_{ps} [BaF_2] = 1,7 \cdot 10^{-6}$, $K_{ps} [BaSO_4] = 1,0 \cdot 10^{-10}$

- Idatzi BaF_2 eta $BaSO_4$ -ren disolbagarritasun ekuazioak eta biderkadurak.
- Kalkulatu F^- eta SO_4^{2-} ioien kontzentrazioa minimoak BaF_2 eta $BaSO_4$ banan-bana hauspeatzeko.
- Adierazi konposatu horietakoren bat hauspeatuko den A eta B disoluzioak nahastuta.